



ASFALTOS URRETXU, S.A- MINA TROYA

Enpresaren identifikazioa eta helbidea

ASFALTOS URRETXU, S.A- MINA TROYA

Aztiriabekoa, zozkera
20217 - Gabiria (Gipuzkoa)

Mina Troya establezimendua (Gabiria, Gipuzkoa) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena aurkeztu dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, artikuluko 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

Establezimenduaren jarduera

Gaur egun ez dago jarduerarik

Istripu larria eragin dezaketen substantziak

Izena	H esaldiak	Piktogramak
Meatze hondakinak	<p>H400: Oso toxikoa da uretako organismoentzat.</p> <p>H410: Oso toxikoa uretako bizitzarentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu.</p>	

Gerta daitezkeen istripu larriak eta horien balizko ondorioak

ASFALTOS URRETXU, S.A- MINA TROYA enpresaren instalazioetan substantzia toxikoak eta ingurumenarentzako kaltegarriak daude. Substantzia horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, establezimendutik kanpo eragiten duten istripuak) produktu horiek tartean dauden istripu zehatzetan bakarrik gerta daitezkeela.

Establezimendutik kanpo eragina izateko moduko istripu larria ekar dezakeen kasurik okerrera lohi isurketa delakoa da —urtegiaren apurketa, akatza edo gainbetetze baten ondorioz sortua—.



Establezimenduak nola jokatu behar duen istripu larria izanez gero

Enpresak neurri egokiak hartu behar ditu establezimenduan, eta larrialdi-zerbitzuekin jarri beharko du harremanetan, istripu larrien kasuan jardun eta arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Establezimenduan esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak auto-babeserako planean jasota daude.

Kanpoko Larrialdi Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak ASFALTOS URRETXU, S.A- MINA TROYAren Kanpoko Larrialdi Plana egin du istripuak prebenitzeko, eta, istripuren bat gertatuz gero, pertsona guztiei informatzeko nola jardun behar duten, betiere 840/2015 Errege Dekretuaren 13. artikularekin bat etorritz.

Kanpoko Larrialdi Plan honek jarduteko jarraibide zehatzak ditu larrialdi-zerbitzuentzat, eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jasotzen dira.

Herritarrentzako alerta eta informazioa

Istripu larriren bat eragin lezakeen egoeraren bat gertatuz gero establezimenduan, eragindako herritarrei ohartaraziko zaie eta informazioa emango zaie.

Honako bitarteko hauek erabiliko dira herritarrak ohartarazteko eta informazioa emateko:

- Zuzeneko abisuak segurtasun-taldearen bidez. Normalean, megafoniaz egiten dira (megafonia finkoa edo mugikorra izan daiteke). Abisu horiei esker, biztanleek zuzenean jakingo dute zein diren berehala aplikatu behar dituzten segurtasun-neurriak.
- Abisuak, hedabide sozialen bitartez (telefonía, faxa, posta elektronikoa, herri-irradiak, tokiko TV kateak).
- Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzaren sare sozialak (X sare soziala, Youtube...)
- 112 SOS Deiak app-aren bidez, herritarrak zuzenean komunikatu ahal izango dira Euskadiko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroarekin (112 SOS Deiak), 112 telefono zenbakira dei eginez, edo, ezin bada, gor-mutuek ahotsik gabeko sarbidea eta irisgarria izanez.
- Gainera, alderantziz, 112 SOS Deiak app-ak istripuaren berri emango du kaltetutako herritarren gailu mugikorren bidez, autobabeserako jarraibideak adierazita.

Herritarrek zer neurri hartu behar duten larrialdiren bat egonez gero

Konfinamendurako eta Auto-babeserako Oinarrizko Jarraibideak



Urtegiaren inguruetan baina Eztanda ibaiaren arrotik kanpo egonez gero:

- Eraikin batean bazaude, barruan geratu.
- Kotxe batean bazaude, kotxea aparkatu trafikoa oztopatzen ez duen toki batean eta eraikin baten barrualdean sartu.
- Entzun herri-irratia eta jarraitu agintarietako emandako gomendioak eta jarraibideak.
- Ez joan eskolara zure seme-alaben bila, beraien arduradunek badakite momentu oro jarraitu beharreko jarraibideak
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Agintarien eskutik emandako larrialdi bukaerako adierazpenaren zain egon

Urrutiratzeko eta babeslekua hartzeko jarraibideak

Urtegiaren ondorengo Eztanda ibaiaren arroan egonez gero, ibaiaren arrotik urrundu hurrengo jarraibideak kontuan hartuta:

- Ibaiaren arroarekiko perpendikularra den noranzkoan altuera kota handiago batera joan, arrotik 200 m gutxienez urrunduz.
- Ez gelditu edozein motako objektu pertsonalak jasotzeko
- Behar den distantzia urrundu eta gero, bilatu babeslekua lokal edo eraikin baten barruan, eta itxi leihoak eta atearak.
- Entzun herri-irratia eta jarraitu agintarietako emandako gomendioak eta jarraibideak.
- Ez joan eskolara zure seme-alaben bila; haien arduradunei ondo jakinaraziko zaie zein neurri hartu.
- Ez erabili telefonoa, behar-beharrezkoa ez bada behintzat.
- Agintarien eskutik emandako larrialdi bukaerako adierazpenaren zain egon



Babestu arnasbideak



**Informazioa jaso
komunikabideen bitartez**



**Esparru edo
establezimendu
hurbilenera joan**



Ez erre, ez piztu surik



Itxi atearak eta leihoak



**Ez erabili aire girotuko
edo berokuntzarako
ekiporik**



**Ez utzi ibilgailurik
zirkulazioa oztopatzeko
moduan**



**Establezimenduko babes-
planaren arabera jokatu**



**Ez hurbildu
establezimendura**



**Ez joan haurren bila
eskolara**



Eskumeneko zerbitzua

2023ko maiatzaren 17an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

Industria Erregelamendu eta Segurtasun Zerbitzua

Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritza
Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza

Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz